

Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE

Hou, Pitxu, hou!!!

LARRAINEN (Zuberoa) izan ginen Gipuzkoako homonimo behar lukeen Larraulgo koadrila. Maskaradaren azken emanaldia bizi nahi genuen.

Eguerdirako herrira iritsi, eta gazte taldea non harrapatuko atzetik ibili ginen. Partaideak kotxe karabanan burrunbaka zihoazen baserri auzo batetik bestera, gurpilei kirrinka eraginaz eta bozina joaz. Ikusi nahi badituzu, zoaz atzetik. Horixe gustatu zitzaigun, ez dela publikoarentzat –gutxiago turista malenkoniatsu manexentzat– eginiko ikuskitzuna. Eurek eurentzat egiten duten festa baizik. Apustua ere galdu nuen, horrelako denean ikusten ditudan hegoaldetarrek Nafarroaren Egunean behar zuten –Xabier Azkue, Unai Brea eta Aizpea Leizaola, huts egin didazue–.

Arratsaldea herriko plazan eserita eman genuen, duela dozena bat urte herri berean maskarada ikusten

egon ginen bezalaxe. Oraingoan alkate-alkatesa, zorroztaile, buhame edo dantzari zirenak, orduan neska-mutil kozkorak izango ziren. Eta dozena bat

urte barru, Larrainen berriro maskarada egiten denerako koadrila ziurtatuta dutela ikusi genuen: neska-mutil kozkorak buhame jantzita zebiltzan, Pitxuri lotsagabekeriak erantzunaz...

Kultura bere erroan bizi dutela ikusi genuen, inbidiaz. Maskarada egin zuen koadrila horrek urtebetez helburu berarekin elkarlanean entseatu du, batzuek dantzak, besteek bertsoak, hirugarrenek antzerkia, eta oso maila altua lortuz, gainera.

Plazan arnasten zen herritarren arteko zirika, festa giroa, baina baita ere solemnitatea: gazteak herri osoaren aurrean protagonista egin zituen emanaldiak. Ez dago sentsibilizazio eta marketin kanpaina hoberik hurrengo belaunaldiak maskaradara lotzeko. ■



ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE

MAIATZAK 6 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI

MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

IRUN 2. zikloa

MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORITZA

MAIATZAK 8 larunbata - 11:00

areto nagusian